

Kaixo, Esti:

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizut nire kezka irakurtzeagatik. Nuria nauzu, Gasteizen bizi naiz, 43 urte ditut, ezkondata nago eta seme bat daukat. Asko gustatzen zitzaidan Euskadi Irratiko Faktoria saioa entzutea; bereziki zure aholkuak. Horregatik, iaz, egunero, entzuten nizun; orain, ordea, lanagatik ezin dut.

Nahiz eta orain ez naizen ohiko entzulea, nire lagun minen bidez, egunero, badakit zeri buruz hitz egiten duzun, eta bere kontatzeko moduarekin, zoratu egiten nau.

Hori horrela izanik, gutun honen bidez adierazi nahi dizut zer gertatzen den azken bolada honetan gure etxean. Lehen esan bezala, seme bat daukat, 13 urtekoa. Txikitatik, asko gustatzen zaio *Legoak* egitea; beraz, urtez urte, bere gela *Lego* piezen *Star Wars* santutegi bihurtu da. Larunbatero, garbiketa orokorra egiten dugu etxean, eta hor datoz arazoak!!

*Legoz* beteta dagoen gela asko kostatzen zaio garbiketa egitea; izan ere, irudi batzuk pintzel batekin garbitu behar ditu, ez apurtzeko, besteak beste, mustuka (plumero) edo trapu batekin, kontu handiz. Eta, jakina, beti haserretuta eta oihuka amaitzen dugu, alde batetik, denbora asko galtzen duelako garbitzen, beste aldetik, ez dituelako nahi irudi eta jostailu batzuk gorde edo oparitu; gainera, aitak eta biok laguntzari uko egiten diogu.

Horren ondorioz, hauexek dira nire galderak: zer egin genezake pieza hauek errazago garbitzeko edo hainbeste hauts ez harrapatzeko?; ezagutzen al duzu trikimailu edo produktu bat bai apaingarriak, bai irudiak, bai jostailuak gutxiago zikintzeko?

Horrenbestez eta bukatzeko, espero dut aholku baliagarriak ematea gure hurrengo garbiketak oihurik gabe izateko.

Eskerrik asko zure laguntzagatik, eta ondo izan!

Nuria.